AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRIZAINGO SAILA

283

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 19koa, Segurtasuneko sailburuordearena eta Giza Baliabideen zuzendariarena, Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko deialdia onesten eta argitaratzen duena.

Ertzaintzaren egituran aurrekontua daukaten lanpostu batzuk hutsik daude, izendapen libreko sistemaren bidez eta merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharrekoak. Lanpostu horiek bete egin behar dira. Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezarri zuen 471/ 2009 Dekretuaren (303/2010 Dekretuak aldarazia) 16. eta 22. artikuluek emandako eskumenen itzalpean,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 1.– Destinoak hornitzeko deialdia onestea eta jendaurrean erakustea, ondoko hauek betetzeko:

a) Ertzaintzako egiturako lanpostuak, bigarren jarduerako administrazio-egoeran egin daitezkeenak, honen I. eranskinean zerrendatuta daudenak.

b) Izendapen libreko sistemaren bidez hornitu behar diren Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, honen II. eranskinean zerrendatuta daudenak.

c) Merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez eta OIKI I eta OIKI II espezialitate-betekizunarekin hornitu behar diren Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, honen III. eranskinean zerrendatuta daudenak.

d) Merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitu behar diren Ertzaintzaren egiturako lanpostuak, honen IV. eranskinean zerrendatuta daudenak.

e) Aurreko eranskinetan zerrendatutako lanpostuei dagozkien esleipenen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak, eta aipatutako eranskinetan asteriskoarekin identifikatzen diren kodeetan hutsik geratzen direnak, ebazpen honetako 2. atalean aipatzen diren salbuespenekin.

2.– Ez dira deialdi honetan sartzen, eta beraz dira erresulten sistemaren bidez esleituko, merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitzen diren lanpostuak, deialdi honetan egiten diren esleipenen ondorioz Erreskateko eta Laguntza Polizial Taktikoko Unitatean, Indartze Brigadan, Brigada Mugikorrean, Babes eta Segurtasun Unitatean, Esku Hartzeko Unitatean, Txakurren Unitatean eta Musika Bandan hutsik geratzen direnak.

3.– Bigarren jarduerako administrazio egoeran hornitu daitezkeen lanpostuak, betetzen ez badira, III. eta IV. eranskinetan lanpostuen kopurua bezalaxe handituko da.

Bigarrena.– Lanpostuak hornitzeko, kontuan hartu beharko dira honako

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Honako deialdian parte hartu ahal izango dute eskainitako lanpostuak bete ahal izateko lanpostuen zerrendan eskatzen eta xedatzen diren baldintza orokorrak eta betekizunak biltzen dituzten Ertzaintzako karrerako funtzionarioek, baldin eta jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan, seme-alabak zaintzeko lan-utzialdian edo Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 82. artikuluan jasotako lan-utzialdian badaude. Jarduneko zerbitzuko egoerara aipatutako Legearen 89.2 artikuluan jasotako moduan bueltatzen diren funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute.

2.– Halaber, jarduneko zerbitzura deialdi honetan jasotako prozeduren bidez bueltatuz gero, honakoek ere parte hartu ahal izango dute: derrigorrezko lan-utzialdiko egoeran dauden edo bestelako Administrazio Publikoetan zerbitzu ematen duten pertsonek, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 63. artikuluan xedatutakoa betez birgaitutako pertsonek, sei hilabete baino gehiagoz zigortuta egon direnek, eta borondatezko lan-utzialdian dauden gainerakoek, beti ere halako egoeretarako xedatutako egonaldi-epea bete baldin badute.

3.– Bigarren jarduerako administrazio egoeran dauden Ertzaintzako karrerako funtzionarioek ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako lanpostuak soilik eskatu ahalko dituzte.

4.– Deialdi honetan parte hartu behar dute eta merezimenduen lehiaketaren bidez hornitzen diren lanpostu huts guztiak eskatu, dagokien kategoriaren arabera hornitu ahal badituzte.

a) Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 39.5 artikuluan eta Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza araudia onartzen duen 315/1994 Dekretuaren 54.2 artikuluan xedatutako irizpide eta balditzen arabera, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak deitutako edo/eta emandako espezializazio-ikastaroa gainditu duten (eskainitako lanpostuak bete ahal izateko betekizunetako bat da) eta ikastaro hori espezialitate-betekizun moduan xedatuta duen lanpostu bat behin betiko esleituta ez duten Ertzaintzaren karrerako funtzionarioek.

Eginbide hori betetzen ez dutenak behin betiko, eta derrigorrez, esleitu ahalko dira dagokion espezialitatean hutsik geratzen diren lanpostuetara, eta ez dute inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

Funtzionarioren batek espezialitate bat baino gehiago badu, aurreko ataletan xedatutako eginbidea lortutako azken espezialitateari buruzkoa dela ulertuko da.

b) Aldi batez lanpostu bat betetzeari atxikita dauden Ertzaintzako karrerako funtzionarioak.

5.– Ezingo dute deialdi honetan parte hartu:

a) Arau-hauste larria edo oso larria egin izanagatik eginkizun-gabetze irmoaren administrazio-egoeran daudenak, egoera horretan dauden bitartean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen Diziplina Araubidearen Arautegiaren 15. artikuluan xedatu bezala, lekualdaketarekin zigortu direnak.

c) Interes partikularragatiko borondatezko lan-utzialdian daudenak, baldin eta egoera horretan ez badute indarrean dagoen araudiak eskatutako gutxieneko epea eman.

d) Gutxieneko egonaldi berezia eskatzen duen lanpostu baten behin betiko esleipendunek, baldin eta ez badute epe hori bete (inguruabar hori lanpostuari uko egin eta organo eskudunak onartu izanaren ondoriozkoa denean izan ezik), bestearen egonaldi eta izaera berberak dituen

beste lanpostu batzuk lortzeko asmoa baldin badute, edo barne-igoera prozesu bidez lanpostua galtzea dakarren beste maila batera igo badira, maila berrian egonaldi eta izaera berberak dituzten postu hutsak daudenean izan ezik; azken kasu horretan, Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiaren 5.3 artikuluan xedatutakoa aplika daiteke.

Aurreko paragrafoak hizpide duen epea datu-basearen arabera funtzionarioa lanpostuak eskatzen duen espezialitateagatiko gutxieneko egonaldiari lotutako lanpostua betetzen hasten den egunetik aurrera zenbatuko da.

e) Deialdi honen aurreko bi urteetan merezimenduen lehiaketaren bidez destinoaz jabetzen direnek izendapen libreko sistemaren bidez hornitu beharreko plazak eskatuz bakarrik parte hartu ahalko dute.

Muga hori ez zaie ezarriko deialdi honen aurreko bi urteetan merezimenduen lehiaketaz lortutako destinoaz jabetzen diren eta gaur egun behin-behinean atxikita dauden pertsonei, salbu eta atxikipen modu hau lanpostuari uko egitetik (organo eskudunak onartuta) ondorioztatzen bada.

Muga hori, era berean, ez zaie aplikatuko Unitate Mugikorreko 40106 eta 40105 lanpostuen behin betiko atxikipenean destinoa lortzen duten langileei, Giza Baliabideen zuzendariaren 2010eko uztailaren 20ko ebazpenaren bidez egindako deialdia dela bide (EHAA, 164. zk, abuztuaren 26koa).

6.– Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 71.2 artikuluan xedatutakoak lehentasunezko eskubidea aitortzen dien Ertzaintzaren karrerako funtzionarioek deialdi honetan eta behin bakarrik erabiliko dute eskubide hori, Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiaren hirugarren xedapen iragankorrak jasotakoaren arabera.

7.– Eskainitako lanpostuak betetzeko behar diren espezialitate-ikastaroak Euskal Herriko Polizia Ikastegiak emanak edo baliozkotuak izan beharko dira, Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Araudian xedatutakoaren arabera.

8.– Merezimenduak baloratzeko orduan eskaerak aurkezteko epearen amaiera-data hartuko da kontuan, eta horixe bera izango da eskatzen diren betekizunak betetzeko erreferentzia-epea. Aipatutakoa ez da aplikagarria euskara-mailari dagokionez; kasu horretan, erreferentzia-data atzeratu egingo da 1.HE ziurtatzeko proba egiteko xedatzen den egunera arte.

9.– Deialdi honetako baremoek derrigortzen dituzten hilabeteen zenbaketak formula honen bitartez egingo dira:

$$\frac{\text{egun kopurua}}{365} \times 12, \text{ dezimalak kontuan izan gabe.}$$

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2012ko otsailaren 15era arte izango da, azken data hori barne.

2.– Honako deialdian parte hartzeko eskaera eskabide-eredu normalizatua erabilita egingo da; interesdunek zerbitzua ematen duten unitateetan eskuratu ahal izango dute agiria, eta eskatutako

lanpostua zein den zehaztu beharko dute bertan; lanpostu bat baino gehiago eskatuz gero, horien lehentasun-hurrenkera zehaztu beharko dute.

3.– Eskabideak aurkezteko epea igarotakoan, egindako eskariak lotesleak izango dira eskatzaileentzat.

Hirugarrena.– Esleipen-faseak.

1.– Deialdi honen xede diren lanpostuen esleipena egiteko faseak bata bestearen atzetik egingo dira eta preklusiboak izango dira.

2.– Fase batean esleitzen diren lanpostuak ez dira hurrengo faseetan hornituko. Hala, fase batean lanpostu baten esleipendun direnek ezin izango diote esleitutako lanpostuari uko egin ezta deialdiko lanpostuen esleipen prozesuan jarraitu ere. Horregatik, ulertu beharko da, hurrengo faseetan lanposturen baten esleipendun suertatzen baldin badira, eskaerei uko egiten dietela.

3.– Esleipen fase guztietan hurrenkera berari helduko zaio. Aitortutako lehentasun-eskubideak kontuan izanik, honela zatituko dira:

a) Lehenengo azpi-fasean, deialdiko onartuen eta baztertuen zerrenda onartzen duen ebazpenean lehenetsitako esleipen eskubidea aitortzen zaien interesdunek soilik parte hartuko dute.

b) Bigarrenean, deialdian onartu diren gainerako interesdunek parte hartuko dute.

4.– Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data amaitua duten lanpostuak betekizun hori egiaztatuta duten interesdunei esleituko zaizkie.

5.–Aurreko ataletan xedatutakoarekin bat etorriz, ebazpen honetako eranskinetan zerrendatutako lanpostuak ondoko fase hauetan (bata bestearen atzetik doazenak eta preklusiboak direnak) esleituko dira, hurrenkera honetan:

a) Bigarren jarduerako administrazio egoeran bete daitezkeen lanpostuak.

Lehenik eta behin, bigarren jarduerako administrazio egoeran bete daitezkeen lanpostuak esleituko dira.

b) Izendapen libreko lanpostuak.

Gero, izendapen libreko sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostu guztiak esleituko dira.

c) Merezimenduen lehiaketako lanpostuak.

1) Merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuak esleituko dira gero, eskainitako lanpostuak betetzeko behar den espezializazio-ikastaroa gainditu duten funtzionarioei dagozkien betebeharrak kontuan izanik, eta Euskal Herriko Poliziaren Legean jasotako eta deialdi honetako onartuen eta baztertuen ebazpenean aitortutako lehentasun-eskubideak kontuan izanik.

Era berean, betekizun berberekin eta egindako esleipenen ondoren hutsik geratzen diren lanpostuak esleituko dira.

2) Azkenik, behin-behineko atxikipenean lanposturik esleitzen ez zaien Ertzaintzako karrerako funtzionarioei behin betiko eta behartuta esleituko zaizkie esleitu gabe geratzen diren lanpostuak, merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharrekoak, lanpostuen zerrendan azaldutako hurrenkera betez. Esleipen horrek ez du inolako kalte-ordainik sorraraziko.

Laugarrena.– Izendapen libreko sistemaren bidez lanpostuak hornitzea.

Euskal Herriko Polizia Kidegoen funtzionarioen lanpostuak hornitzeko araudiaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, izendapena egiteko beharrezkoa izango da administrazio unitateko edo hornitu beharreko lanpostua atxikita daukan titularraren txostena egitea aldez aurretik. Txosten horretan hautagaien arteko egokitasun proposamena egingo da edo deialdia hutsik geratzea proposatuko da.

Bosgarrena.– Merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez lanpostuak hornitzea.

1.– Merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitzen diren lanpostuen esleipen prozedura merezimendu orokorren balorazioan datza. Salbuespen gisa, bi fase ere izan ahalko ditu. Lehenengoan merezimendu orokorrak baloratuko dira eta bigarrenean berariazko merezimenduak, eta prozedurarekin jarraitu ahal izateko, eskatzaileek kasuan kasuko baremoetan zehaztutako gutxieneko puntuazioa lortu beharko dute.

2.– Merezimendu orokorrak baloratzeko, Herrizaingoko sailburuaren aginduan, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agentearen eta lehenengo mailako Agentearen Kategorietan zein Ikuskapen Eskalako Ofizialordearen eta Ofizialaren Kategorietan sartzeko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko merezimenduen baterako eta banakako baremoa onesten duena, ezarritako merezimenduak aplikatuko dira.

Ebazpen honetako V. eranskinean, lanpostuak xehatzen dira, bigarren jarduerako administrazio egoeran bete ahal diren lanpostuak barne, alor guztietakoak, merezimendu orokorrak baloratzean datzan merezimenduen lehiaketaren sistemaz hornitu beharrekoak, bakarrik.

3.– Merezimendu orokorrak baloratzeaz gain, lanpostuak betetzeko berariazko merezimenduak baloratuko dira, bigarren jarduerako administrazioko egoeran bete ahal direnak barne, alor guztietakoak, ebazpen honetako VI. eranskinean jasoak. Eranskin horretan, berariazko proba funtzional bakar batean ebaluatu behar diren lanpostuak biltzen dira.

3.1.– Berariazko merezimenduak baloratzeko proba bat egingo da, nahitaezkoa eta baztertzailea. Proba hau lanpostuaren eduki funtzionalari buruzko ezagutzen ariketa teoriko eta praktikoa izango da, gehienez 40 punturekin baloratuko dena. Proba gainditzeko beharrezkoa izango da gutxienez 20 puntu lortzea, salbu eta hurrengo atala aplikatu behar bada.

Proba Gurenet atarian erakutsiko den gai-zerrendako edukiei buruzkoa izango da. Proba egiteko eguna baino 30 egun lehenago jarriko da gai-zerrenda atarian.

3.2.– VI. eranskinean hala aurreikusten den lanpostuetarako, bigarren proba bat egingo da, nahitaezkoa eta baztertzailea, lanpostuko eginkizunak betetzeko eskumenak ebaluatzeko proba-programa bat egitean datzana. Proba hori gehienez 15 punturekin baloratuko da. 7,5 puntu lortu behar dira gainditutzat jotzeko.

Gaitasuna ebaluatzeko proba hau egitearen mende dauden lanpostuetarako, proba teoriko eta praktiko hau gehienez ere 30 punturekin baloratuko da. Gainditutzat emateko gutxienez 15 puntu lortu behar dira.

Era berean, proba Gurenet atarian erakutsiko den gai-zerrendako edukiei buruzkoa izango da. Proba egiteko eguna baino 30 egun lehenago jarriko da gai-zerrenda atarian.

4.– Fakultatibo eta Teknikarien Eskalako lanpostuetarako, merezimenduen lehiaketa VII. Eranskinean aurreikusitako baremoak xedatzen dituen merezimenduen balorazioan eta deitutako lanpostuen eduki eta betekizunei buruzko berariazko proba bat egitean datza. Lanpostu horien

berariazko eskakizunak eta funtzioak ere aipatutako eranskinean xehatzen dira. Musika Bandako zuzendari eta zuzendariordearen lanpostuei buruzko berariazko merezimendu probetan ez da aurreikusten gai-zerrendarik, probak praktikoak, nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira eta. Proba hori gehienez 40 punturekin baloratuko da eta 20 puntu lortu beharko dira gainditutzat jotzeko.

Seigarrena.– Balorazio Batzordeak.

Deialdi honi dagozkion probak eta merezimenduak baloratzeko, balorazio batzordeak eratuko dira. Haien osaera Euskal Herriko Polizia Kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudian xedatutakoaren arabera izango da.

Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpena xedapen honetan azaltzen diren iragarki-oholetan argitaratzean jakinaraziko da Balorazio Batzordeetako kideen eta horien ordezkoen izendapena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jarritako iragarki baten bidez jakinaraziko da izendapen horiek noiz argitaratuko diren iragarki-oholetan. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzean mugatuko dira inpugnazioak edo errekurtsoak jartzeko epeak.

Balorazio Batzordeetako kideek ezingo dute esku hartu Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean halako kasuetarako jasotako inguruabarrak ematen direnean; hori gertatzekotan organo eskudunari jakinarazi beharko zaio, eta hautagaiek errefusatu egin ditzakete.

Balorazio Batzordeen erabakiak bertaratuen botoen gehiengo bidez hartuko dira, eta berdinketarik egonez gero, batzordeburu lanak egiten dituenak ebatziko du; batzordeburu titularra edo horren ordezkoa bertaratu ezean, adinez nagusiena den batzordekideak ordezkatuko du.

Balorazio Batzordeak ezingo dira eratu, eta ezingo dute jardun, kideen erdia baino gehiago, idazkaria barne, bertaratzen ez bada; gainera, deialdia egin duen agintaritzari adituak eskatu ahal izango zaizkio aholkulari gisa, eta horiek ahotsa izango duten arren, ez dute botorik edukiko.

Balorazio Batzordeei dagokie:

a) Prozeduraren objektibotasunaren arduradun diren heinean, deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatzea eta, hala dagokionean, araudian dauden hutsuneak osatzeko behar diren hitzarmenak hartzea, eta horiek aplikatzean azaleratzen diren kontraesanak kentzea.

b) Merezimenduak, orokorrak zein berariazkoak, baloratzea edo zeregin hori egoki deritzon pertsonaren esku uztea; horretarako hartuko dituzte xedapen honetan azaltzen diren iragarki-oholetan argitaratuko diren behin-behineko hitzarmenak; interesdunek bost (5) egun balioduneko epea izango dute horien aurkako inpugnazioak egiteko, eta Batzordeak arduratuko dira inpugnazio horiez.

c) Hirugarren oinarrian xedatutakoaren araberako esleipen-proposamenen ondorioz hutsik gelditu diren lanpostuen eta deitutako lanpostuen artean puntuaziorik altuena lortu dutenei lanpostuak esleitzeko proposamena Giza Baliabideen zuzendariari eramatea eta puntuaziorik altuena lortu duten hautagaiei proposatzea, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean aurreikusitako lehentasun-eskubideei kalterik eragin gabe.

Balorazio Batzordeetan parte hartzeak legez aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko bidea emango du.

Zazpigarrena.– Izendapenak eta lehiaketaren ebazpena.

a) Izendapen librearen sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuak.

1) Izendapen libreko sistemaren bidez hornitu behar diren lanpostuak Segurtasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez esleituko dira. Ebazpena interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie, eta hamargarren oinarrian ezarritakoaren arabera erakutsiko da jendaurrean.

2) Lanpostu horiek esleitzen zaizkien funtzionarioak haietatik kendu ahal dira, eskatu ahala, Euskal Herriko Poliziaren Legearen 70.6 artikuluan ezarritako terminoetan. Esleipen horiek borondatezkoak direla joko da; horrenbestez, ez da sortuko kalte-ordainak ordaintzeko eskubiderik.

b) Merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuak.

1) Merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitzen diren lanpostuak Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpenaren bidez esleituko dira. Hamargarren oinarrian ezarritakoaren arabera argitaratuko da.

2) Esleipena lortzen duten funtzionarioek ezingo diote lanpostuari uko egin, eta ezingo dute lanpostuaz jabetzeko dataren ondorengo bi urteetan deitzen diren lehiaketetan parte hartu, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeko 69.3 artikuluan eta Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiaren 14.2 artikuluan xedatutako kasuetan salbu. Esleipen horiek borondatezkotzat hartuko dira eta, beraz, ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango.

3) Lanpostua lehiaketa bidez lortzen duten funtzionarioak beren postuetatik kendu ahal izango dira Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 70.4 artikuluan eta Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiaren 15. artikuluan xedatutako legez.

4) Era berean, bigarren jarduerako administrazio egoeran dauden langileek bete ahal dituzten lanpostuen azken zuzkiduren esleipendun diren funtzionarioak lanpostu horietatik kendu ahal dira, Euskal Herriko Poliziaren Legearen 70.5 artikuluan eta Euskal Herriko Polizia Kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiaren 15.4 artikuluan ezarritako terminoetan. Horren berri emango zaie beren-beregi eta pertsonalki.

Zortzigarrena.– Deialdia ebazteko epea.

Deialdi hau ebazteko epea, izendapen librearen sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuei dagokienez eta merezimenduen lehiaketaren sistemaren bidez hornitu beharreko lanpostuei dagokienez, sei hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoko egunetik aurrera zenbatuta. Halere, epe hori luzatu ahal izango da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa kontuan izanik.

Bederatzigarrena.– Lanpostuaz jabetzea.

Deialdi honen bidez bete beharreko lanpostuez jabetzeko prozesua deialdia erabakiko duen Ebazpenak arautuko du.

Hamargarrena.– 1.– Prozedura honetan ematen diren ekintza eta xedapen guztiak Gurenet atarian eta Herrizaingo Sailaren eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko iragarki-ohol hauetan erakutsiko dira:

Araba lurraldean:

– Vitoria-Gasteizko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Biasteriko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Laudioko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Miñoien giza baliabideak.
– Iradierko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Berroziko giza baliabideak.
– Arkauteko Euskal Herriko Polizia Ikastegia.

Bizkaia lurraldean:

– Erandioko giza baliabideak, 3. fasea.
– Ertzaintzako Langileriaren Kudeaketa eta Administrazio Arloa, Erandio, Kubo Eraikina.
– Bilboko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Balmasedako ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Basauriko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Durangoko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Galdakaoko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Gernikako ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Getxoko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Muskizko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Ondarroako ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Sestaoko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Iurretako ertzain-etxeko giza baliabideak.

Gipuzkoa lurraldean:

– Oiartzungo zentroko giza baliabideak.
– Donostiako ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Azkoitiko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Beasaingo ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Bergarako ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Eibarko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Hernaniko ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Irungo ertzain-etxeko giza baliabideak.
– Errenteriako ertzain-etxeko giza baliabideak.

– Tolosako ertzain-etxeko giza baliabideak.

– Zarauzko ertzain-etxeko giza baliabideak.

– Zumarragako ertzain-etxeko giza baliabideak.

2.– Segurtasuneko sailburuordearen eta Giza Baliabideen zuzendariaren baterako ebazpenaren bidez, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuko da, behin betiko atxikipenak ebazten dituen ebazpena iragarki-oholetan noiz jarriko den jakitera emateko. Iragarki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzean mugatuko dira inpugnazioak edo errekurtsoak jartzeko epeak.

Hamaikagarrena.– Zerbitzu-eginkizunetarako poltsak.

1.– Poltsak eratzeko araubidea:

Behin betiko atxikipen prozesua amaitzean, Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpenaren bidez, borondatezko zerbitzu-eginkizuneko araubidean ebazpen honetako VI. eranskinean zerrendatutako lanpostuak hornitzeko poltsak eratuko dira.

Behin betiko esleipen prozesua amaitutakoan, xedapen honetan aipatzen diren iragarki-oholetan argitaratuko da poltsak onesten dituen Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpena. Poltsa horietan, aipatutako lanpostuetakoren bat esleitzeko prozeduran parte hartu duten langileak sartuko dira, baldin eta betekizun egokiak betetzeagatik eta aukeraketa irizpideekin bat etorriz lanpostuak hornitzeko prozedura hau gainditzen badute baina halere poltsako lanpostuan behin betiko atxikipeneko lanposturik lortzen ez badute.

2.– Poltsak aplikatu behar diren kasuak:

Arau hau dagokien lanpostuetako batean zerbitzuko beharrizanak daudenean, zerbitzu-eginkizuna esleituko da, sortzen diren poltsen kontura.

3.– Zerbitzu-eginkizunen esleipena.

Zerbitzu beharrizanen bat dagoenean, unitateko burutza egokiak Ertzaintzako Ekintza Zuzendaritzari eskatuko dio Giza Baliabideen Zuzendaritzan zerbitzu-eginkizunen esleipena izapidetu dadila.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak zerbitzu-eginkizuna adierazten diren beharrizanen arabera esleituko du. Beharrizan horiek aplikatu beharreko lan-poltsatik ateratzen den lehentasun-hurrenkeraren araberakoak izango dira, sistema honen bidez hornitu behar den lanpostuaren arabera. Zerbitzu-eginkizunen ondorioen data Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpenak zehaztuko du.

Izendapen proposamena onartzen ez bada, berariaz nahiz tazituki, lehentasun-hurrenkeran hurrengora igaroko da, izapide gehiagorik egin gabe.

Zerbitzu-eginkizuna esleitzea bidezkoa izan dadin, interesduna berehala zerbitzua ematen hasteko moduan egon beharko da.

Lan-poltsetako kideak poltsetatik irtengo dira beraien kategoria aldatzen denean, edo beren espediente pertsonaleko edozein inguruabar aldatzen denean, horrek hornitu behar den lanpostua betetzeko baldintzak ez betetzea baldin badakar. Diziplina-zehapenak betetzeko denboraldietan, lan-poltsetatik kanpo geratuko dira behin-behinean. Aldi baterako ezintasunetan, arau berbera aplikatuko da.

Interesdunek edozein unetan eska dezakete baja lan-poltsetan. Horretarako, Giza Baliabideen Zuzendaritzari idazki bat bidali beharko diote.

4.– Zerbitzu-eginkizunen ezeztapena.

Ebazpen honen hizpide diren zerbitzu-eginkizunak edozein unetan ezeztatu ahal izango dira, nahierara, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 72.6 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

Nolanahi ere, titularra lanpostura itzultzeagatik edo esleipena ekarri zuten zerbitzuko beharrizanak desagertzeagatik ezeztatuko dira.

Zerbitzu-eginkizunak egokitasun ezagatik ezeztatu ahal dira. Unitateko burutzak txosten batean azaldu eta arrazoitu behar ditu lanpostua behar bezala betetzeko behar diren baldintzak ez betetzea (edo gerora baldintza horiek betetzeari uztea, hala gertatuz gero) nola gertatu den. Txostenak dagokion alorreko burutzaren oniritzia izan behar du. Unitateko burutzak ukitutako funtzionarioari jakinaraziko dio, txostenaren edukiaren berri emanez. Giza Baliabideen Zuzendaritzak zerbitzu-eginkizuna ezeztatuko du. Txosten horrek balio mugatua izango du; bakarrik dagozkion kasuari eta poltsari aplikatuko zaie. Funtzionarioa poltsatik baztertuko da.

5.– Ordainsarien araubidea:

Zerbitzu-eginkizuna ematen zaien funtzionarioek beren kategoriari dagozkion oinarrizko ordainsariak eta betetzen duten lanpostuari esleitutako ordainsari osagarriak jasoko dituzte.

Ematen diren zerbitzu-eginkizunei ezin zaie uko egin eta borondatezkoak dira; beraz, ezin dute inolako kalte-ordainik sortu.

6.– Poltsen indarraldia:

Orain sortzen diren poltsak behin betiko atxikipeneko lanpostuak hornitzeko hurrengo deialdira arte edo lanpostu horietarako lan-poltsak sortzea aurreikusten duen deialdira arte egongo dira indarrean.

Oinarri honek aipatzen dituen premiak betetzeko berariazko zerbitzu-eginkizun deialdia egitea erabakitzen denean, bertan xedatutakoari lotuko zaio.

Hamabigarrena.– Datu pertsonalen babesa.

1.– Prozeduraren kudeaketan, lehiakideak bere zenbaki profesionalaren bidez identifikatuko dira eta datu pertsonalen babesa Herrizaingo Saileko Giza Baliabideko Zuzendaritzako Langileriaren Kudeaketa Integratuko fitxategian egingo da. Fitxategiaren arduraduna den administrazio organoa Giza Baliabideen Zuzendaritza bera izango da. Datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak gauzatzeko, idazki bat zuzendu beharko zaio Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzari, Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 – Erandio, Bizkaia.

2.– Prozedura honetatik ondorioztatzen diren datu guztiak aipatutako fitxategian sartuko dira, aukeraketa prozesu honetan aplikatu behar den araudian aurreikusitakoa bete ahal izateko.

Hamahirugarrena.– Aurreikusi ez diren gauzetarako, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, aplikatu beharko da.

Hamalaugarrena.– Errekurtsoak.

Interesdunek Ebazpen honen eta bere oinarrien aurkako gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Herrizaingoko sailburuaren aurrean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 107. eta 114. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 19a.

Segurtasuneko sailburuordea,
MIGUEL ÁNGEL BUEN LACAMBRA.

Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSÉ M.ª ECHEGARAY FERNÁNDEZ.

I. ERANSKINA

UNITATEA	KODEA	LANPOSTUA	KATEGORIA	UDALERRIA	HORN. SISTEMA	ESPEZIALITATEA	HORNITU BEHAR. KOP.	DERRIGORTASUN - DATA AMAITUA
Arabako lurraldeko AKZ	20604	Operadorea	Agentea	Vitoria-Gasteiz	ML		1	
Arabako lurraldeko AKZ	20607	Arabako LAZLZ operadorea	Agentea	Vitoria-Gasteiz	ML		1	
Bizkaiko lurraldeko AKZ	20703	Operadorea	Agentea	Erandio	ML		1	
Gipuzkoako lurraldeko AKZ	20803	Operadorea	Agentea	Oiartzun	ML		1	
Gipuzkoako lurraldeko AKZ	20807	Gipuzkoako LAZLZ operadorea	Agentea	Donostia	ML		1	
Arabako Trafikoko LU	21206	Trafikoa	Agentea	Vitoria-Gasteiz	ML	BIDE SEG.	1	
Bizkaiko Trafikoko LU	21306	Trafikoa	Agentea	Erandio	ML	BIDE SEG.	1	
Bizkaiko Trafikoko LU	21308	Ikerketa	Agente L.	Erandio	ML	OIKI I	1	
Gipuzkoako Trafikoko LU	21409	Ikerketa	Agentea	Oiartzun	ML	OIKI I	1	1
Miñoien Atala	21506	Herritarren Seg.	Agentea	Vitoria-Gasteiz	ML		4	
Blasteriko ertzain-etxea	21804	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Biasteri	ML		1	
Laudioko ertzain-etxea	21906	Herritarren Seg.	Agentea	Laudio	ML		3	
Vitoria-Gasteizko ertzain-etxea	22017	Herritarren Seg.	Agentea	Vitoria-Gasteiz / Iruña Oka	ML		4	1
Balmasedako ertzain-etxea	22104	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Balmaseda	ML		1	
Balmasedako ertzain-etxea	22105	Herritarren Seg.	Agente L.	Balmaseda	ML		1	
Basauriko ertzain-etxea	22210	Ikerketa	Agentea	Basauri	ML	OIKI I	1	
Bilboko ertzain-etxea	22307	Herritarren Seg.	Agentea	Bilbo	ML		1	
Bilboko ertzain-etxea	22310	Ikerketa	Agentea	Bilbo	ML	OIKI I	1	
Durangoko ertzain-etxea	22406	Herritarren Seg.	Agentea	Durango	ML		1	
Erandioko ertzain-etxea	22504	Herritarren Seg.	Ofizialordea	Erandio	ML		1	
Galdakaoko ertzain-etxea	22606	Herritarren Seg.	Agentea	Galdakao	ML		1	
Gernikako ertzain-etxea	22706	Herritarren Seg.	Agentea	Gernika	ML		4	

UNITATEA	KODEA	LANPOSTUA	KATEGORIA	UDALERRIA	HORN. SISTEMA	ESPEZIALITATEA	HORNITU BEHAR. KOP.	DERRIGORTASUN - DATA AMAITUA
Gernikako ertzain-etxea	22709	Ikerketa	Agentea	Gernika	ML	OIKI I	1	
Getxoko ertzain-etxea	22807	Herritarren Seg.	Agentea	Getxo	ML		2	
Ondarroako ertzain-etxea	23006	Herritarren Seg.	Agentea	Ondarroa	ML		4	4
Azkoitiko ertzain-etxea	23306	Herritarren Seg.	Agentea	Azkoitia	ML		3	3
Beasaingo ertzain-etxea	23406	Herritarren Seg.	Agentea	Beasain	ML		5	4
Bergarako ertzain-etxea	23517	Herritarren Seg.	Agentea	Bergara	ML		4	4
Donostiako ertzain-etxea	23607	Herritarren Seg.	Agentea	Donostia	ML		1	
Eibarko ertzain-etxea	23706	Herritarren Seg.	Agentea	Eibar	ML		3	2
Hernaniko ertzain-etxea	23807	Herritarren Seg.	Agentea	Hernani	ML		5	4
Irungo ertzain-etxea	23906	Herritarren Seg.	Agentea	Irun	ML		4	
Errenteriako ertzain-etxea	24007	Herritarren Seg.	Agentea	Errenteria	ML		5	1
Tolosako ertzain-etxea	24106	Herritarren Seg.	Agentea	Tolosa	ML		5	5
Zarauzko ertzain-etxea	24206	Herritarren Seg.	Agentea	Zarautz	ML		5	5
Zumarragako ertzain-etxea	24306	Herritarren Seg.	Agentea	Zumarraga	ML		3	3
Zerbitzu Zentraleko Unitatea	30204	Zerbitzuko agentea	Agente L.	Erandio	ML	OIKI I	2	1
Zerbitzu Zentraleko Unitatea	30205	Zerbitzuko agentea	Agentea	Erandio	ML	OIKI I	2	
Eraikinen Segurtasuneko Unitatea	40505	Segurtasuna	Agentea	Berrozi	ML		22	

II. ERANSKINA.

UNITATEA	KOD.	IZENDAPENA	KATEGORIA	UDALERRIA	HORN. SISTEMA	ESPEZ.	HORNITU BEHARREKO KOP.	DERRIGORTASUN - DATA AMAITUA
Ertzaintzako Ekintza Zuzendaritza	10001	Ertzaintzako burua	Superintendentea	Erandio	IL		1	
Ertzaintzako Ekintza Zuzendaritza	10002	Ertzaintzako buruaren albokoa	Superintendentea	Erandio	IL		1	
IAAko Alorreko Burutza	60001	IAAko Alorreko burua	Superintendentea	Erandio	IL		1	
IAAko Alorreko Burutza	60002	IAA Alorreko buruordea	Intendentea	Erandio	IL		2	
Diziplina Unitatea	60101	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	IL		1	
Diziplina Unitatea	60102	Unitatearen buruordea	Komisariordea	Erandio	IL		*	
Diziplina Unitatea	60103	Arloburua	Ofiziala	Erandio	IL	OIKI II	2	
Administrazioko unitatea	60301	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	IL		1	
Administrazioko unitatea	60302	Unitatearen buruordea	Komisariordea	Erandio	IL		2	
Administrazioko unitatea	60303	Arloburua	Ofiziala	Erandio	IL		6	
Administrazioko unitatea	60320	Agentea	Agentea	Erandio	IL		2	
Zerbitzu unitatea	60401	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	IL		1	
Zerbitzu unitatea	60402	Unitatearen buruordea	Komisariordea	Erandio	IL		2	
Zerbitzu unitatea	60403	Arloburua	Ofiziala	Erandio	IL	OIKI II	2	
Zerbitzu unitatea	60416	Agentea	Agentea	Erandio	IL		2	
Zerbitzu unitatea	60413	EHPIko Barnetegiko arloburua	Ofiziala	Vitoria-Gasteiz	IL		1	
Zerbitzu unitatea	60414	EHPIko barnetegia	Oinarrizko e.	Vitoria-Gasteiz	IL		8	
AKZ Zentrala	20201	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	IL		*	

UNITATEA	KOD.	IZENDAPENA	KATEGORIA	UDALERRIA	HORN. SISTEMA	ESPEZ.	HORNITU BEHARREKO KOP.	DERRIGORTASUN - DATA AMAITUA
AKZ Zentrala	20202	Unitatearen buruordea	Komisariordea	Erandio	IL		1	1
AKZ Zentrala	20204	Bulego Teknikoa	Ofiziala	Erandio	IL		*	
Arabako lurraldeko AKZ	20610	Zentroko burua	Komisariordea	Vitoria-Gasteiz	IL		1	
Bizkaiko lurraldeko AKZ	20710	Zentroko burua	Komisariordea	Erandio	IL		1	
Gipuzkoako lurraldeko AKZ	20810	Zentroko burua	Komisariordea	Oiartzun	IL		1	
Segurtasun Pribatua	25101	Unitateburua	Komisarioa	Erandio	IL		*	
Joko eta Ikuskizunen Unitatea	30601	Unitateburua	Komisarioa	Bilbo	IL		*	
Joko eta Ikuskizunen Unitatea	30602	Unitatearen buruordea	Ofiziala	Bilbo	IL		1	
Herritarren Segurtasuneko eta Ekintza Baliabideen Alorreko Burutza	20001	Herritarren Segurtasuneko eta Ekintza Baliabideen Alorreko burua	Superintendentea	Erandio	IL		1	
Herritarren Segurtasuneko eta Ekintza Baliabideen Alorreko Burutza	20002	Herritarren Segurtasuneko burua	Intendentea	Erandio	IL		1	
Herritarren Segurtasuneko eta Ekintza Baliabideen Alorreko Burutza	20016	Babeseko eta BBOOen burua	Intendentea	Erandio	IL		1	
Herritarren Segurtasuneko eta Ekintza Baliabideen Alorreko Burutza	20003	Plangintzako burua	Egiterapen e.	Erandio	IL		3	
Herritarren Segurtasuneko eta Ekintza Baliabideen Alorreko Burutza	20004	Herritarren Segurtasuna	Ikuskapen e.	Erandio	IL		*	
Arabako Lurralde Burutza	20301	Lurraldeko burua	Intendentea	Vitoria-Gasteiz	IL		1	
Arabako Lurralde Burutza	20303	Lurralde Zentroko burua	Komisariordea	Vitoria-Gasteiz	IL		2	
Arabako Lurralde Burutza	20309	HSrako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen e.	Vitoria-Gasteiz	IL		*	
Arabako Lurralde Burutza	20310	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen e.	Vitoria-Gasteiz	IL	OIKI II	1	
Arabako Lurralde Burutza	20311	Plangintza eta Kudeaketa	Ikuskapen e.	Vitoria-Gasteiz	IL		*	
Bizkaiko Lurralde Burutza	20401	Lurraldeko burua	Intendentea	Bilbo	IL		1	
Bizkaiko Lurralde Burutza	20402	Lurraldeko buruordea	Intendentea	Bilbo	IL		1	

UNITATEA	KOD.	IZENDAPENA	KATEGORIA	UDALERRIA	HORN. SISTEMA	ESPEZ.	HORNITU BEHARREKO KOP.	DERRIGORTASUN - DATA AMAITUA
Bizkaiko Lurralde Burutza	20403	Lurralde Zentroko burua	Komisariordea	Bilbo	IL		1	
Bizkaiko Lurralde Burutza	20409	HSrako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen e.	Bilbo	IL		*	
Bizkaiko Lurralde Burutza	20410	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen e.	Bilbo	IL	OIKI II	*	
Bizkaiko Lurralde Burutza	20412	Plangintza eta Kudeaketa	Ikuskapen e.	Bilbo	IL		*	
Gipuzkoako Lurralde Burutza	20501	Lurraldeko burua	Intendentea	Oiartzun	IL		1	
Gipuzkoako Lurralde Burutza	20502	Lurraldeko buruordea	Intendentea	Oiartzun	IL		1	
Gipuzkoako Lurralde Burutza	20503	Lurralde Zentroko burua	Komisariordea	Oiartzun	IL		2	1
Gipuzkoako Lurralde Burutza	20509	HSrako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen e.	Oiartzun	IL		1	1
Gipuzkoako Lurralde Burutza	20510	Ikerketako Idazkaritza Teknikoa	Ikuskapen e.	Oiartzun	IL	OIKI II	*	
Gipuzkoako Lurralde Burutza	20511	Plangintza eta Kudeaketa	Ikuskapen e.	Oiartzun	IL		*	
Miñoien Atala	21501	Unitateburua	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz	IL		1	
Miñoien Atala	21502	Unitatearen buruordea	Komisariordea	Vitoria-Gasteiz	IL		*	
Mikeleteen Atala	21601	Mikeleteen burua	Komisarioa	Oiartzun	IL		*	
Mikeleteen Atala	21602	Mikeleteen buruordea	Komisariordea	Oiartzun	IL		*	
Foralen Atala	21701	Foralen burua	Komisarioa	Bilbo	IL		*	
Foralen Atala	21702	Foralen buruordea	Komisariordea	Bilbo	IL		*	
Biasteriko ertzain-etxea	21801	Unitateburua	Komisarioa	Biasteri	IL		1	
Biasteriko ertzain-etxea	21802	Unitatearen buruordea	Komisariordea	Biasteri	IL		*	
Laudioko ertzain-etxea	21901	Unitateburua	Komisarioa	Laudio	IL		*	
Laudioko ertzain-etxea	21902	Unitatearen buruordea	Komisariordea	Laudio	IL		*	

UNITATEA	KOD.	IZENDAPENA	KATEGORIA	UDALERRIA	HORN. SISTEMA	ESPEZ.	HORNITU BEHARREKO KOP.	DERRIGORTASUN - DATA AMAITUA
Vitoria-Gasteizko ertzain-etxea	22011	Unitateburua	Intendentea	Vitoria-Gasteiz/Iruña Oka	IL		1	
Vitoria-Gasteizko ertzain-etxea	22012	Unitatearen buruordea	Komisarioa	Vitoria-Gasteiz/Iruña Oka	IL		2	
Vitoria-Gasteizko ertzain-etxea	22013	Zentroko burua	Komisariordea	Vitoria-Gasteiz/Iruña Oka	IL		3	
Balmasedako ertzain-etxea	22101	Unitateburua	Komisarioa	Balmaseda	IL		*	
